

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Erlijio islamiarra emateko komunitate musulmandarrak egindako eskariari nola erantzun aztertzen ari da Hezkuntza departamentua

3 urteko ikasleekin hastea da aurreikuspena eta aurrematrikulazio datuen arabera, 6 ikastetxe daude legeak ezartzen duen gutxienerako 10 ikasleko taldea osatzeko egoeran

Astelehena, 2018.eko otsailak 26

Gizarte eta Hiritar Balioen ikasgaiaren eta estatu espainiarrak akordioak dituzten erlijio komunitateen erlijio ikasgaiaren inguruko eskariak biltzen ari da Hezkuntza departamentua. Iaz, familia musulmadarren 1400 instantzia jaso ziren Departamentuan euren seme-alabentzat erlijio islamiarra jaso nahi zutela adierazten, hautazko ikasgai gisa. Hala, Herritarren eta Erakundeen Harremanetarako departamentuak zuzentzen duen elkarbizitza mahaian, konpromisoa hartu zuen Hezkuntzak 18-19 ikasturteko aurrematrikulazioan eskariak jasotzeko, legeak agintzen duen eran. Azken batean, asmoa litzateke datu zehatzak ezagutzea jakiteko Foru Erkidegoan zein den erlijio islamiarra jasotzeko asmoa duten ikasle-kopurua.

Gaur egun, aurrematrikulazio kanpaina zehar, 3 urteko ikasle berrien eskari-datuak bildu dira. 258 eskari, lurraldean oso banatuak, eta, legeak jasotzen duen gutxienerako 10 ikasleko taldetan bilduz gero, 6 ikastetxe lirateke. 26/1992ko, azaroaren 10eko, Estatuaren eta Espainiako Batzorde Islamikoaren arteko kooperazio akordioaren Legeak zehazten du, hain justu, bermatu egin beharra dagoela ikasle musulmandarren, euren gurasoen eta hala eskatzen duten gobernuaren eskola-organoen erlijio islamiarra jasotzeko eskubidea, haur, lehen eta bigarren hezkuntza ikastetxe publiko nahiz itunpekoetan, beti ere, eskubide hori ikastetxearen izaerarekin kontraesanean ez badago.

Era berean, 1996ko apirilaren 23ko Ebazpenak, Idazkariordetzarena, 1996ko martxoaren 1eko Ministro kontseiluaren akordioa eta erlijio islamiarraren garapena jasotzen duenak, bere zortzigarren klausulan dio, "islamiar erlijioa eskatzen duten ikastetxeko bateko maila bereko ikasleak taldekatu egingo dira, irakaskuntza hori jasotzeko".

Gaur egun, beraz, Hezkuntzak 258 eskari bildu ditu 3 urteko ikasleen aurrematrikulazio kanpaina, lurraldean oso banaturik, eta, beraz, maila horretako 6 ikastetxek lukete gutxienerako 10 ikasleko taldea.

Hala ere, ikastetxeek otsailaren 28ra bitartean daukate 3 urtetik gorako datuak Departamentuari jakinarazeko. Era horretan ezagutuko ahalko da gainerako ikasleei dagokien eskariaren benetako argazkia.

Ondotik baloratu ahal izango da hala eskatu duten familien eskubidea bermatzeko egin beharrekoa, beti ere, aintzat hartuz, 3 urteko ikasleekin hasia dela aurreikuspena.